

bidebieta

Aisia eta heziketa uztartuz


bidebietako Gazte Txokoak martxa onean hasi du 95-96 ikasturtea. Ostiralerako, urriak 27, diapoen tailerra antolatu da gazteek istorioak asma ditzaten.

Astelehenean berriz, hilak 30, malabar tailerra egingo da, bertan, benetako malabarista baten lana ikusteko aukera eskainiko zaie gazteei eta malabartarako behar den materiala banatuko da.

Dena den, 14 urtetik 16ra bitarteko gazteentzat bereziki prestatua dagoen lokal honetan beste gauza asko egin daitezke: aldizkariak irakurri, komikiak irakurri, hainbat jokotan parte hartu, eta abar.

Ekintza hauez gain, ez dugu ahaztu behar ardura-dunen helburu nagusietariko bat zein den, osasunerako heziketaren inguruko ekintzen antolaketa alegia. Horretarako, zuen ideiak eta laguntza eskatzen ditu Bidebietako Gazte Txokoak. Harremianetan jarri nahi izanez gero, Juan Carlos Guerra z/g-an duten lokalera jo dezakezue edo bestela, 39 48 90 telefonora deitu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Gazte Txokoak aisialdirako orduak betetzeko aukera ugari ematen dizkie Herrera, Bidebieta eta inguruko gazteei. Osasunaren inguruan, hitzaldi, ikastaro eta ekintza ugari antolatzen dituzte. Bereziki, gazteei zuzenduak.

altza

Altza kantari

abesbatzen VI. Topaketan barruan, gaurkoan, hilak 27, San Martzial elizan Finlandiako «Serena Choir» abesbatza izango dugu arratseko 20.00etan. Kjerstin Sikrön musika irakaslearen zuzendaritzapean, 28 emakume gaztek osatzen dute «Serena Choir» abesbatza.

Nazioarteko lehiaketa ugaritan parte hartu duen talde honen errepertorioan gaurko abesbatza musika eta musika finlandiarra

primeran nahasten dira.

Larunbatean berriz, hilak 28, Donostiako bitalde izango dira Abesbatzen VI. Topaketa hauetan. Imanol Elizasuk zuzentzen duen «Itxaropena» abesbatzak eta Xanti Lizeagak zuzenduriko «Santa Zezilia» abesbatzak batera abestuko dute 20.00etan San Martzial elizan.

«Itxaropena» abesbatza Altzako San Martzial elizan biltzen zen lagun talde baten fruitua da.

1968. urteaz geroztik, etengabe aritu dira kontzertuak ematen. Azken urteetan zortzikote egitura finkatu dute.

«Santa Zezilia» abesbatza berriz 1928an eratu zuen Inozentio Gaztelumendik. Hasieran gizonen ahotssez osatua zegoen abesbatza hau, gaur egun ahots nahasiz osatua dago.

Kontzertu hauek Donostiako Kultur Udal Patronatuak eta Casares Kultur Etxeak antolatu dituzte.

Irutxulo

IRUTXULOk banatzaile lanetarako jendea behar du **Intxaurren, Altza, Herrera, Egia, Ullia, Martutene, Loiola, Añorga, Antigua, Gros, Ibaeta, Aiete, Amara Berri, Amara Zaharra, Bidebieta, Parte Zaharra eta Erdialdean.**

Interesaturik bazaude, deitu: 429593 edo 426807